



**DONOSTIAKO UDAL INFORMATIKA  
ZENTROKO MEMORIA-KABINAREN  
HORNIDURA ETA INSTALAZIOA  
KONTRATATZEKO PROZEDURA  
IREKIAN: ESLEIPENA**

**PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA  
CONTRATACIÓN, MEDIANTE  
PROCEDIMIENTO ABIERTO, DEL  
SUMINISTRO E INSTALACIÓN DE  
UNA CABINA DE ALMACENAMIENTO,  
DEL CENTRO INFORMÁTICO  
MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE  
SAN SEBASTIÁN: ADJUDICACIÓN**

UIZeko Kudeatzaileak, 2013ko maiatzaren 27an hartutako erabakian, Udal Informatika Zentroko memoria-kabinaren hornitu eta instalatzeko kontratuan bete beharreko administrazio-baldintza berezien orriak nahiz jarraibide teknikoaren orriak onartzea erabaki zuen. Kontratuaren aurrekontua, guztira, 95.000 eurokoa da (BEZ barne), honela banatuta: 78.512,40 € gehi 16.487,60 €ko BEZa, eta kontratuaren iraupena bost hilabetekoa izango da. Halaber onartu zuen kontratua emateko lizitazioa eta esleipena 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 EDLak onetsitako Sektore publikoko kontratuetako Legearen Testu Bateratuaren 157. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako prozedura ireki bidez egitea.

La Gerente del Centro Informático Municipal, por resolución de 27 de mayo de 2013, acordó aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas a regir en la contratación del "Suministro e instalación de una cabina de almacenamiento, del Centro Informático Municipal del Ayuntamiento de San Sebastián" con un presupuesto máximo de 95.000 €, IVA incluido, y un plazo de vigencia de cinco meses, con el siguiente desglose: 78.512,40 €+ 16.487,60 € IVA; así como su licitación y adjudicación por el procedimiento abierto previsto en los artículos 157 y siguientes del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por RDL 3/2011, de 14 de noviembre.

A) gutun-azaleko dokumentazio administratiboa aztertu ondoren, egiaztatu da aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela klausula administratibo berezien agirian ezarritako betekizun guztiak, kasu hauetan izan ezik:

Verificada la documentación administrativa contenida en el sobre A) se constató que la documentación presentada cumple con todos y cada uno de los requisitos exigidos en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, excepto en los casos siguientes:

) IBERMÁTICA SA eta Data Base Storage S.L. OMEGA PERIPHERALSek aurkeztutakoak, kaudimen teknikoaren baldintzak betetzen ez dituztelako. Hori dela eta, 2013ko uztailaren 5eko Kontratazio Mahaiak erabaki zuen alde batera uztea bi enpresa horiek aurkeztutako eskaintzak.

1º) la presentada por IBERMÁTICA, S.A. y Data Base Storage, S.L. OMEGA PERIPHERALS, que no cumplían con los requisitos de solvencia técnica. Por este motivo la Mesa de Contratación de 5 de julio de 2013 acordó proponer la exclusión de las oferta presentadas por ambas empresas.

2) ASAC Comunicaciones SLk aurkeztutakoa. Izan ere, hiru eguneko epea eman zitzaion C gutun-azalean adierazitako dokumentazioa aurkez zezan, eta dokumentazio hori aurkeztu ondoren,

2º) la presentada por ASAC Comunicaciones S.L., que una vez finalizado el plazo de subsanación de 3 días, concedido para que aportara la documentación que decía haber aportado en



egiaztatu da ez dituela betetzen kaudimen teknikoaren betekizunak. Hori dela eta, 2013ko uztailaren 10eko Kontratazio Mahaiak erabaki zuen alde batera uztea enpresa horrek aurkeztutako eskaintza.

C) gutun-azaleko dokumentazio administratiboa aztertu ondoren, egiaztatu da gainerako hiru enpresek aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela klausula administratibo berezien agirian ezarritako betekizun guztiak, kasu honetan izan ezik:

1) Internacional Periféricos y Memorias España S.L. enpresak aurkeztutakoak ez ditu betetzen eskatutako betekizunak; izan ere, C gutun-azalean automatikoki baloratu beharreko bi hobekuntza sartu zituen, eta hobekuntza horiek B gutun-azalean sartu behar zituen. Hori dela eta, 2013ko uztailaren 17ko Kontratazio Mahaiak erabaki zuen enpresa horrek aurkeztutako eskaintza alde batera utz zedila proposatzea.

Azkenik, onartutako proposamenen alderdi ekonomiko eta teknikoak aztertuta, 2013ko uztailaren 30eko Kontratazio Mahaiak erabaki du **TECNOCOM TELECOMUNICACIONES Y ENERGIA, S.A** enpresaren proposamena ekonomikoki onuragarriena dela. Hori dela-eta, **TECNOCOM TELECOMUNICACIONES Y ENERGIA, S.A.** enpresaren aldeko esleipen-proposamena onartzen da, 94.755,62€ren truke, BEZa barne, honela banatuta: 78.310,43€ gehi 16.445,19 €ko BEZa. Gauzatzeko epea 5 hilabetekoa izango da.

Horiek horrela direla, aipatutako enpresak eskatu zaion dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta Udaleko zerbitzuen proposamena kontuan harturik, Informatika Zentroko Kudeatzaileak hau

el sobre C, y aportada la misma, se comprobó que no cumplía los requisitos de solvencia técnica. Por este motivo la Mesa de Contratación de 10 de julio de 2013 acordó proponer la exclusión de la oferta presentada por dicha empresa.

Posteriormente, verificada la documentación técnica contenida en el sobre C) se constató que la documentación presentada por las tres empresas restantes cumple con todos y cada uno de los requisitos exigidos en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, excepto en el caso siguiente:

1º) la presentada por Internacional Periféricos y Memorias España, S.L., que no cumplía con los requisitos exigidos, puesto que incluyó en el sobre C, dos mejoras objeto de valoración automática que debían incluido únicamente en el sobre B. Por este motivo la Mesa de Contratación de 17 de julio de 2013 acordó proponer la exclusión de la oferta presentada por dicha empresa.

Por último, analizados los aspectos económicos y técnicos de las proposiciones admitidas, la Mesa de Contratación de 30 de julio de 2013 considera que la propuesta de **TECNOCOM TELECOMUNICACIONES Y ENERGIA, S.A.**, es la económicamente más ventajosa, por lo que se propone su adjudicación en favor de la empresa, **TECNOCOM TELECOMUNICACIONES Y ENERGIA, S.A.**, por un importe de 94.755,62€ IVA incluido, con el siguiente desglose: 78.310,43 € más 16.445,19 € IVA, y un plazo de ejecución de 5 meses.

Por lo expuesto, una vez presentada por la citada empresa la documentación requerida, a propuesta de los servicios del Ayuntamiento, la Gerente del CIM adopta los siguientes

**ERABAKI DU**

**ACUERDOS**



Lehena- Baztertu IBERMÁTICA, S.A., Data Base Storage, S.L. OMEGA PERIPHERALS eta ASAC Comunicaciones S.L., enpresek aurkeztutako eskaintza, ez baitute estaturiko kaudimen teknikoa akreditatu.

Bigarrena- Alde batera uztea Internacional Periféricos y Memorias España S.L. enpresak aurkeztutako eskaintza, C gutunazalean automatikoki baloratu beharreko bi hobekuntza sartu dituelako eta B gutunazalean baizik sartu behar ez zituelako.

Hirugarrena- 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 EDLak onetsitako Sektore publikoko kontratuetako Legearen Testu Bateratuaren 157. artikuluan eta hurrengotan, prozedura ireki bidez TECNOCOM TELECOMUNICACIONES Y ENERGIA, S.A. enpresari esleitzea, "Donostiako Udalaren Informatika Zentroko memoria-kabinaren hornidura eta instalazioko" kontratua, gehieneko aurrekontua 94.755,62 €rena izanda, BEZa barne, honela banatuta: 78.310,43 € gehi 16.445,19 BEZa. Kontratuaren gauzatzepea 5 hilabetekoa izango da; betiere, kontratua arautzen duten baldintza orrietan jasotako betebeharrak zorrotz betez gero.

Laugarrena- 94.755,62 €ko gastua, horrela banatuta (78.310,43€ gehi 16.445,19€ BEZa), 2013ko UIZen aurrekontuko 1.08.53.670.626.12 partidari egotziko zaio.

Primero- Excluir las ofertas presentadas por IBERMÁTICA, S.A. y Data Base Storage, S.L. OMEGA PERIPHERALS y ASAC Comunicaciones S.L., por no acreditar la solvencia técnica exigida.

Segundo- Excluir la oferta presentada por Internacional Periféricos y Memorias España, S.L., por haber incluido en el sobre C, dos mejoras objeto de valoración automática que debían haber incluido únicamente en el sobre B.

Tercero- Adjudicar por el procedimiento abierto previsto en los artículos 157 y siguientes del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por RDL 3/2011, de 14 de noviembre la Ley 30/2007, a la empresa TECNOCOM TELECOMUNICACIONES Y ENERGIA, S.A. el contrato de "Suministro e instalación de una cabina de almacenamiento, del Centro Informático Municipal del Ayuntamiento de San Sebastián" por un precio de 94.755,62 €, IVA incluido, y un plazo de vigencia de cinco meses, con el siguiente desglose: 78.310,43 € más 16.445,19 € IVA, con estricto cumplimiento de las prescripciones contenidas en los pliegos de condiciones que rigen el presente contrato.

Cuarto- Imputar el gasto de 94.755,62 €, IVA incluido, con el siguiente desglose: 78.310,43 € más 16.445,19 € IVA, a la Partida 1.08.53.670.626.12 del Presupuesto de 2013 del CIM.

Donostia, 2013ko abuztuaren 22a  
San Sebastián, a 22 de agosto de 2013

UDAL INFORMATIKA ZENTROKO KUDEATZAILEA  
LA GERENTE DEL CENTRO INFORMÁTICO MUNICIPAL

Izpta: Ana Salustiano Esnoz